# Osasun Eskualde Oinarrizkoa
# Valtierra-Cadreita







## 1. Argibide orokorrak

| | Eskualdeko balioa | Nafarroa |
|---|---|---|
| Biztanleria (**2023**): | 13.460<br>Emak.: %48,7<br>Giz.: %51,3 | 672.155<br>%49,5<br>%50,5 |
| Batez besteko adina: | Emak.: 44,3<br>Giz.: 42,8 | 46,3<br>43,2 |
| Ugalkortasun-tasa: | ‰110 | - |
| Gazteen mendekotasunaren indizea: | % 27,2 | %24,7 |
| Zahartzaroko mendekotasun indizea: | %32,7 | %32,0 |
| Gainzahartzea: | %20,6 | %17,2 |
| Atzerritan jaiotako biztanleak: | %25,3 | %17,9 |
| Bizi itxaropena: | Emak.: 85,8<br>Giz.: 80 | 86,8<br>81,3 |
| Biztanleria-densitate: | 61,4 biz.km$^2$ | 68,9 biz.km$^2$ |
| Zabalera: | 218,93 km$^2$ | 9758,6 km$^2$ |
| Zer Eskualdetakoa den: | Ebro Ardatza (ikus mapa) | |
| Udalerriak: Arguedas, Cadreita, Milagro, Valtierra, Villafranca | | |

## 2. Komunitatea eta osasuna

*Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak.* Valtierra-Cadreitako osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, DBHko graduatu titulurik gabeko 18-24 urte bitarteko gazteen ehunekoa (% 12,3), bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etxeen ehunekoa (% 44,4) eta diru-sarreren desberdintasuneko Gini indizea (% 33,8).

*Osasunari dagozkion emaitzak.* Valtierra-Cadreitako osasun-eskualde oinarrizkoa eskualdeen laurden hoberenean dago datu honetan: soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 44,0). Aitzitik, eskualdeen laurden txarrenean dago datu hauetan: 3 patologia kroniko edo gehiago dituzten pertsonak (emakumeen % 6,6 eta gizonen % 12,7), 2 motako diabetesa diagnostikaturik duten emakumeak (% 7,1) eta antsiolitikoak eta antidepresiboak kontsumitzen dituzten emakumeak (% 17,7).

*Inkesta-adierazleak.* Hurrengo emaitza doitu* hauek Ebroko Ardatza eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Valtierra-Cadreitako eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Ebroko Ardatzak emaitzarik onena du zenbait adierazletan: alkohola astero edatea (gizonek: % 21,9; emakumeek: % 5,1), frutak eta barazkiak egunero jatea (gizonek: % 28,0) eta ongizate txikia izatea oro har (gizonek: % 16,7). Aitzitik, emaitzarik txarrena du hiru adierazletan: bizimodu sedentarioa izatea (gizonek: % 25,4), gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko gizonek: % 66,9) eta tabakoa egunero erretzea (emakumeek: % 14,4).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

# Valtierra-Cadreita

## 3. Adierzleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien banakako fitxak ikus daitezke Behatokiaren webgunean.

| Taldea | Adierazlea | Epea | Eskualdeko kasu kop. | Eskualdeko balioa | Nafarroako batez bestekoa | o | Hobe |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Faktore soziodemografikoak | 1. 20 urtetik beherako amen jaiotzak | 2021-2023 | 5 | 1,3 | 1,1 | 4,0 | 0,0 |
| | 2. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak | 2021 | 115 | 12,3 | 6,0 | 13,0 | 1,2 |
| | 3. Langabezia tasa | 2023 | - | 9,3 | 9,6 | 17,1 | 3,9 |
| | 4. Muturreko pobreziaren arriskuaren tasa | 2022 | - | 9,2 | 7,9 | 13,3 | 3,4 |
| | 5. Giniren indizea | 2022 | - | 33,8 | 31,0 | 39,5 | 23,8 |
| | 6. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak | 2024 | 274 | 44,4 | 39,8 | 49,6 | 18,8 |
| | 7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak | 2024 | 78 | 21,0 | 19,3 | 39,2 | 9,0 |
| | 8. Baso azalera | 2024 | 2296 | 10,5 | 34,0 | 0,0 | 67,7 |
| Bizimoduak | 9. Amagandiko edoskitze esklusiboa 6 hilabete betetzean | 2023 | 37 | 44,0 | 35,4 | 15,2 | 66,7 |
| | 10. Frutak eta barazkiak egunero kontsumitzea (E) # | 2022 | 136 | 31,5 | 33,3 | 30,6 | 37,1 |
| | 11. Frutak eta barazkiak egunero kontsumitzea (G) # | 2022 | 93 | 28,0 | 25,5 | 24,5 | 28,0 |
| | 12. Sedentarismoa emakumezkoetan # | 2022 | 124 | 31,7 * | 26,0 | 32,1 | 22,3 |
| | 13. Sedentarismoa gizonezkoetan # | 2022 | 93 | 25,4 * | 19,4 | 25,4 | 16,4 |
| | 14. 100 gramotik gorako alkohola kontsumitzea astean (E) # | 2021 | 10 | 5,1 * | 8,6 | 11,8 | 5,1 |
| | 15. 100 gramotik gorako alkohola kontsumitzea astean (G) # | 2021 | 38 | 21,9 | 23,6 | 25,0 | 21,9 |
| | 16. Tabakoa egunero kontsumitzea (E) # | 2022 | 47 | 14,4 | 13,1 | 14,4 | 12,9 |
| | 17. Tabakoa egunero kontsumitzea (G) # | 2022 | 69 | 17,0 | 22,4 | 24,9 | 16,8 |
| Gaixotze-tasa | 18. Ongizate orokor eskasa (E) # | 2021 | 59 | 28,2 | 30,1 | 35,2 | 21,3 |
| | 19. Ongizate orokor eskasa (G) # | 2021 | 33 | 16,7 | 23,0 | 34,2 | 16,7 |
| | 20. Gehiegizko pisua (≥ 15 urteko) (E) # | 2022 | 86 | 37,0 | 34,8 | 44,0 | 32,3 |
| | 21. Gehiegizko pisua (≥ 15 urteko) (G) # | 2022 | 128 | 66,9 | 59,8 | 66,9 | 54,8 |
| | 22. Haurren (6-9 urtekoen) gehiegizko pisua (E) | 2021-2023 | 75 | 26,1 | 29,2 | 40,7 | 18,4 |
| | 23. Haurren (6-9 urtekoen) gehiegizko pisua (G) | 2021-2023 | 95 | 30,1 | 30,2 | 37,2 | 17,9 |
| | 24. 2. motako diabetesa diagnostikatutakoen prebalentzia (E) | 2023 | 418 | 7,1 * | 6,2 | 7,6 | 3,2 |
| | 25. 2. motako diabetesa diagnostikatutakoen prebalentzia (G) | 2023 | 501 | 9,2 | 8,8 | 11,7 | 6,4 |
| | 26. 3 patologia edo gehiago dituzten pazienteak (64 urtetik gorakoak) | 2023 | 203 | 6,6 | 7,8 | 8,7 | 3,5 |
| | 27. 3 patologia edo gehiago dituzten pazienteak (64 urtetik gorakoak) | 2023 | 259 | 12,7 | 12,2 | 16,4 | 6,0 |
| | 28. Antsiolitikoen eta antidepresiboen kontsumoa emakumezkoetan | 2023 | 1269 | 17,7 * | 17,8 | 20,3 | 11,3 |
| | 29. Antsiolitikoen eta antidepresiboen kontsumoa gizonezkoetan | 2023 | 566 | 8,3 | 8,7 | 11,0 | 5,9 |
| Osasun Sistema | 30. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak | 2023 | 659 | 78,4 | 78,6 | 60,5 | 97,6 |
| | 31. TA-ren neurketa duten hipertentsoak | 2023 | 1028 | 51,3 * | 55,2 | 33,5 | 86,4 |




**Adierazleen iturria:** 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Udal. Estat; 4-5: Errenta. Estat; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatien Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarrizko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

# Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak (p < 0,05) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduen, morbilitatearen eta osasun sistemaren adierazleetarako eginiko kontrastea).

**1.** Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (‰) 14 eta19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5** Diru-sarreren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; **6 eta 7.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **8.** Baso-azaleraren %; **9.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **10 eta 11.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 27,6); **12 eta 13.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doitua: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 32,7 eta gizonak 24,9); **14 eta 15.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doitua (t. gordina: emakumeak 5,2 eta gizonak 21); **16 eta 17.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 13,3 eta gizonak 18,5); **18 eta 19.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 28,2 eta gizonak 17,7); **20 eta 21.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 37,5 eta gizonak 66,9); **22 eta 23.** Pisu gehiegi -gehiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doitua, OMEk haurren hazkuntzarako emaniko ereduen arabera (T. gordina: emakumeak 26,5 eta gizonak 30,7); **24 eta 25.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doitua (T. gordina: emakumeak 8,2 eta gizonak 9,3); **26 eta 27.** 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 9,9 eta gizonak 14,1); **28 eta 29.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doitua: N05B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 19,7 eta gizonak 8,2); **30.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **31.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaion biztanleriaren %.